

2015-2017ko GIPUZKOAKO GIZARTE ZERBITZUEN MAPA

Laburpena

2015eko maiatza

Oro har esateko, gizarte zerbitzuen mapa bat planifikaziorako tresna bat besterik ez da, lurralde historiko batean eta denbora-tarte jakin baterako hiritarren premiak eta eskaera sozialak estaltzeko beharrezkoak diren zerbitzuak nola garatu eta hedatu beharko liratekeen ezartzen duena, hain zuzen ere.

Hemen aurkezten dugun 2015-2017ko Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapak (dokumentu honetan GGZM bezala izendatuko da hemendik aurrera) Gipuzkoako errealitatera eramaten ditu Euskal Autonomia Erkidegoko 2015-2017ko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan ezarritako planifikazioko irizpideak, eta lurraldearen maila bakoitzean lortu beharreko estaldurak proposatzen ditu, bai udalaren eskumenekoak diren lehen mailako arretako gizarte zerbitzuetan eta baita foru eskumenekoak diren bigarren mailako arretako zerbitzuetan ere.

Beraz, argi utzi nahi dugu ezen lehen mailako arretako gizarte zerbitzuei dagokienez, GGZMak proposamen bat egiten diela lurraldeko udalerriei, udalek beraiek zabaldu edo aldatu dezaketen proposamena hain zuzen ere, eta hori guztia 12/2008 Legeak esleitzen dien eskumen esparruaren barruan eta arestian aipatutako Plan Estrategikoak ezarritako gutxieneko estalduren barruan betiere.

Gipuzkoan gizarte zerbitzuen sare integratu bat sendotzeko ahaleginean aurrerapauso handia emango litzateke, baldin eta udalerriek eta Foru Aldundiak bi administrazio-mailek onartutako GGZP bakarra adostuko balute.

Hala ere, eta edozein dela ere azkenean lor daitekeen akordio eta adostasun-maila, onartua izan ondoren GGZM lehen aipatutako EAEko Plan Estrategikora eranskin bezala gehitzea aurreikusten da.

2015-2017ko Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Maparen helburuak:

Mapa honen **helburu nagusia** ondorengo da:

Gipuzkoako lurralde eremu desberdinetan aurreikusitako eskaerak estaltzeko beharrezkoak diren gizarte zerbitzuak martxan jarri eta hedatzeko planifikazioa ezartzea eta, era horretan, 2017. urterako EAE mailan arretaren estaldurak orokortzeko ahaleginean aurrera egiteko modua ematea.

Helburu nagusi hori lortzeko, hurrengo **helburu estrategikoak** ezartzen dira:

1. Premia sozialek Gipuzkoan gaur egun duten egoera eta datozen urteetan eduki dezaketen eboluzioa balioestea.
2. Gipuzkoako LHan gizarte zerbitzuen lurralde mailako antolamendu egokirako parametroak eta irizpideak zehaztea.
3. Gipuzkoako gizarte zerbitzuetako sare publikoaren eskaintza premia sozialen eboluziora egokitu eta moldatzea, hurrengo puntuei dagokienez:
 - Sortu beharreko plaza berrien edo birmoldatu beharreko plazen kopurua

- Plaza eta zerbitzuen eskaintzaren kokapena, lurraldearen barruko oreka sustatzearen ikuspegitik
- Arreta sareak indartzea pertsonaren hurbileko ingurunean

4. Erakundeen arteko koordinazioa erraztu eta sustatzea, gizarte zerbitzuen sare barruan bezala baita beste sareekiko ere.

Estaldura eta banaketako helburu horiekin batera, **zerbitzuak eta horien ebaluazioa hobetzer**a bideratutako beste zerbitzu batzuk ere ezarri dira:

5. Zerbitzuen eta prestazioen eskaintzaren kalitate teknikoa eta kudeaketaren kalitatea hobetzea, pertsonen premietara egokitutako arreta, bere ingurunearekiko ahalik eta gertuenekoa, bermatzeko.
6. Proposatutako helburu eta neurrien jarraipena, ebaluazioa eta kontrol publikoa ahalbidetzea.

2015-2017ko Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Maparen egitura:

Ondoren aurkezten den Mapa, prestaketarako garatutako laneko faseen arabera dago egituratua:

1. FASEA. Lurralde Antolaketarako erabilitako ezaugarri orokorrak eta oinarrizko irizpideak zehaztea
2. FASEA Egungo eskaerari eta prebalentziari dagozkion oinarrizko datuak, nahiz bilakaera eta etorkizunera begirako aurreikuspenak aztertzea, gizarte zerbitzuen alorrean
3. FASEA. Populazioaren hedapenerako irizpideak ezarri eta aplikatzea Gipuzkoako Lurralde Historikorako
4. FASEA. Gipuzkoako gizarte zerbitzuetako sare publikoko estaldura-helburuak eta defizitak zehaztea eta lehentasuneko esku-hartzeak hautatzea
5. FASEA. Gipuzkoari dagokionez, hobekuntzarako helburuak hautatzea

Eranskin modura, dokumentu osoan, hauek barneratzen dira:


- I. Eranskina.- Memoria Ekonomikoa
- II. Eranskina.- Ebaluaziorako Plana, Maparen indarraldi osoan zehar hedatuko dena, bertako helburuak birbideratu eta birdoitzea ahalbidetuz. Horretarako, 33 adierazle, jomuga eta jazoera hautatu dira eta horien betetze-maila urtero ebaluatuko da.

1. FASEA.- Lurralde-antolaketa: antolamendu hori zehazteko erabilitako irizpideak

EAEko Gizarte Zerbitzuen mapa berria sartutako **antolamenduko irizpideak** aplikatu zaizkio Gipuzkoako lurraldeari fase honetan. Testu hori joan zen 2014ko abenduaren 19an onartu zuen Gizarte Zerbitzuetako Erakunde Arteko Organoak (aurrerantzean GZEAO bezala izendatuko denak). Lurraldea lau mailatan banatzen da: sektoreak, eskualdeak, area edo eremuak eta oinarritzko zonaldeak.


Gizarte Zerbitzuetako 2 sektoreak

1. mapa. Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuetako Sektoreak




Gizarte Zerbitzuetako 7 eskualde administratiboak:

2. mapa. Gipuzkoako eskualde administratiboak



Gizarte Zerbitzuetako 17 eremuak

3. mapa- Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuetako eremuak



Gizarte Zerbitzuen 56 oinarrizko zonalde

Hasierako proposamen gisa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan oinarrizko zonaldeen araberrako udalerrien banaketa posible bat aurkezten da. Dena den, lehen mailako arretako gizarte zerbitzuak besterik ezartzen ez diren bosgarren lurralde maila hori antolatzeko proposamenak Gipuzkoako Lurralde Historikoko tokiko erakundeen onarpena eskatzen du ezinbestean.

Gure iritzian formula horrek balio dezake gizarte zerbitzuak eman ditzaketen mankomunitateak edo bestelako udalerrien elkarteak eratu eta osatzea sustatzeko, hurbiltasun geografikoaren eta baliabideen erabilera eraginkorraren printzipioei jarraituz, udalerrien autonomiarekiko errespetu ahalik eta handienetik betiere, horiek izango baitira euren udal-eskumenak antolatzeari buruz erabakiak hartu beharko dituztenak azken finean.

Antolamenduko irizpideak lurraldeari aplikatzea eta Gipuzkoako LHaren biztanleria hurrengo bi tauletan laburbiltzen da:

1. taula. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuetako Oinarrizko Zonaldeen proposamena eta biztanle kopurua (Ekialdeko Sektorea)

SEKTOREA	ESKUALDEAK	EREMUAK	OINARRIZKO ZONALDEEN PROPOSAMENA	OINARRIZKO ZONALDE BAKOITZEKO BIZTANLERIA				
EKIALDEA 405.121 bizt.	BIDASOA 77.908 bizt.	Bidasoa 77.908 bizt. 3 zonalde	Hondarribia	16.795				
			Irun: oinarrizko 2 zonalde	30.556 (batez beste)				
	DONOSTIALDEA 327.213 bizt.	Buruntzaldea 69.637 bizt. 6 zonalde	Buruntzaldea 69.637 bizt. 6 zonalde	Andoain	14.630			
				Urnieta	6.214			
				Hernani	19.354			
				Astigarraga	5.304			
				Lasarte-Oria	18.024			
				Usurbil	6.111			
		Donostia A Alde Zaharra–Erdigunea 16.166 bizt.	Donostia A Alde Zaharra–Erdigunea 16.166 bizt.	Donostia A Alde Zaharra–Erdigunea 16.166 bizt.	Donostia: oinarrizko 8 zonalde	23.313 (batez beste)		
							Donostia B Amara Berri–Zaharra– Loiola–Martutene 42.513 bizt.	Donostia B Amara Berri–Zaharra– Loiola–Martutene 42.513 bizt.
							Donostia D Altza–Bidebieta–Herrera 29.517 bizt.	Donostia D Altza–Bidebieta–Herrera 29.517 bizt.
							Oarsoaldea 71.076 bizt. 6 zonalde	Oarsoaldea 71.076 bizt. 6 zonalde
Oiartzun	9.995							
Pasaia: oinarrizko 2 zonalde	7.925 (batez beste)							
Lezo	6.054							

2. taula. Gipuzkoako Lurralde Historikoko banaketa geografikoen proposamena (Mendebaldeko Sektorea)

SEKTOREA	ESKUALDEAK	EREMUAK	OINARRIZKO ZONALDEEN PROPOSAMENA	OINARRIZKO ZONALDE BAKOITZEKO BIZTANLERIA
MENDE-BALDEA 308.697 bizt.	DEBAGOIENA 62.596 bizt.	Bergaraldea 18.091 bizt. 2 zonalde	Antzuola-Elgeta-Leintz Gatzaga (BIDE BERRI)	3.586
			Bergara	14.763
		Leintz Ibarra 44.505 bizt. 4 zonalde	Arrasate	22.050
			Aretxabaleta	6.930
			Eskoriatza	4.064
			Oñati	11.202
	DEBABARREN A 55.605 bizt.	Deba Erdia 31.457 bizt. 2 zonalde	Eibar	27.440
			Soraluze	4.018
		Deba Kosta 24.148 bizt. 3 zonalde	Elgoibar-Mendaro	13.499
			Deba	5.424
			Mutriku	5.225
	UROLA KOSTA 73.802 bizt.	Iraurgi 31.168 bizt. 3 zonalde	Azkoitia	11.463
			Azpeitia	14.509
			Aizarnazabal-Zestoa	4.420
		Urola Kostaldea 42.634 bizt. 4 zonalde	Orio-Aia	7.562
			Zarautz	22.760
			Getaria	2.686
			Zumaia	9.626
	GOIERRI 69.685 bizt.	Urola garaia 26.187 bizt. 3 zonalde	Legazpi	8.638
			Urretxu	6.853
			Zumarraga	10.094
		Oria garaia 43.498 bizt. 6 zonalde	Beasain	13.792
			Ordizia	9.767
Idiazabal-Mutiloa-Segura-Zegama-Zerain			5.834	
Lazkao-Olaberría-Ataun			8.109	
Altxaga-Arama-Itsasondo-Gaintza-Legorreta-Zaldibia			4.188	
Gabiria-Ormaiztegi-Ezkio Itsaso			2.410	
TOLOSALDEA 47.009 bizt.	Tolosaldea 47.009 bizt. 8 zonalde	Tolosa	18.836	
		Aduna-Asteasu-Alkiza-Larraul-Zizurkil	5.603	
		Villabona	5.882	
		Ibarra	4.268	
		Elduain-Gaztelu-Belauntza-Berrobi-Berastegi-Leaburu-Lizartza-Orexa	3.430	
		Amezketeta-Abaltzisketa-Altzo-Alegia-Orendáin-Baliarrain-Ikaztegieta	4.254	
		Anoeta-Hernalde-Irura	3.889	
		Albiztur-Beizama-Bidania-Goiatz-Errezil (SAIAZ)	1.623	

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentua. INE, 2013ko urtarrilak 1

Behin lurraldearen eta biztanleriaren banaketa hori egin ondoren, 2014ko abenduaren 19an GZEAOK onartutako EAeko Gizarte Zerbitzuen Karteraren Dekretuaren zirriborroa hartu da, eta bertan agertzen diren **zerbitzuetako bakoitza lurraldearen zein mailatan eman behar den erabaki da**, zerbitzu horiek erabiltzaileengandik hurbil egongo direla bermatzeko. Hortik hurrengo taula ateratzen da:

1. koadroa. Katalogoko zerbitzu bakoitzari esleitutako lurralde eremua

LURRALDE EREMUA	ZERBITZUAK	
	UDAL ESKUMENEKOAK	FORU ESKUMENEKOAK
OINARRIZKO ZONALDEA	1.1. Informazio, balorazio, diagnostiko eta orientazioko zerbitzua	
	1.2. Etxeko laguntza zerbitzua	
	1.3. Gizarte eta hezkuntza arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartze zerbitzua	
	1.4. Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua	
EREMUA	1.7. Eguneko arretarako zerbitzua: adinekoak	2.2.1. Adinekoentzako eguneko zentroa
	1.9.1. Harrerako etxebizitza: (gizarte larrialdia + emakumeak)	2.2.2. Zentro okupazionala
	1.9.2., 1.9.3. eta 1.9.4. Bizileku zerbitzuak: adinekoak	2.4.1. Adinekoentzako egoitza zentroak
ESKUALDEA	1.7. Eguneko arreta: bazterketa (eguneko zentroak eta jangelak)	2.4.2.a) Etxebizitza, desgaitasuna duten pertsonentzako laguntzekin
	1.8. Gaueko harrera: bazterketa (ostatuak eta neguko dispositiboak)	2.4.3.a) Etxebizitza, gaixotasun mentala duten pertsonentzako laguntzekin
	1.9.2. Etxebizitza babestua: bazterketa	2.4.4. Egoitza zentroak, babesgabatasuneko egoeran dauden adingabeentzat
SEKTOREA		2.2.1. Eguneko zentroa, desgaitasuna duten pertsonentzako
		2.2.3. Eguneko zentroa, gizarteratzeko premiei erantzuteko
		2.4.2. Egoitza zentroak, desgaitasuna duten pertsonentzako
		2.4.3. Egoitza zentroak, gaixotasun mentala duten pertsonentzako
		2.4.5. (2) Egoitza zentroak, gizarteratzeko
		2.4.6. (2) Egoitza zentroak, etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako, egonaldi ertain/luzekoak
LURRALDE HISTORIKOA		2.3.1. Gaueko zentroa: autonomian mugak dituztenentzako
		2.3.2. Gaueko harrera zentroa: gizarteratzea
		2.4.5. (1). Egoitza zentroak, bazterketa kronikoko kasuentzako
		2.4.6. (1). Berehala harrera egiten duten zentroak, etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako

2. FASEA- Egungo eskariaren eta etorkizuneko aurreikuspenen azterketa, Gizarte Zerbitzuetan

Egungo egoeraren azterketa bat egin da, etorkizunerako premiak estimatzearekin batera. Ondorengoak dira, laburbilduz, egindako lanaren konklusio nagusiak:

Egungo eskaeraren azterketa:

- ✓ Egoitza zentro eta komunitate zentro gehienetan sartzeko eskaerek zertxobait gora egin dute 2014. urtean, eta prestazio ekonomikoak jasotzeko eskaeren kopuruak ere gora egin du.
- ✓ Itxaron zerrendetan ere gorakada egon da, adineko pertsonentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroetan eta eguneko zentroetan batik bat.
- ✓ Arreta hartzeko eskaerak ere gora egin du 2014an adingabekoentzako harrera egoitzako eta familia harrerako zerbitzuetan.
- ✓ Lurralde mailako desorekaren bat edo beste sumatzen da zenbait zerbitzuren eskaintzan.
- ✓ Plaza hutsen errotazioa eskas samarra da desgaitasuna edo/eta gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza zentroetan eta eguneko zentroetan.
- ✓ Zentroen okupazio-maila oso altua da oro har (% 90etik gorakoa)

Etorkizunerako aurreikuspenak, gizarte premiei dagokienez:

- ✓ 65 urteko edo hortik gorako biztanleriaren pisu erlatiboak nabarmen egingo du gora. Eta horien artean, biderkatu egiten da 80 urtekoek edo hortik gorakoek gizarte zerbitzuetan duten inpaktua.
- ✓ 2017an, 5.800 pertsona gehiago izan zitezkeen gizarte zerbitzuen eskatzaile.
- ✓ Desgaitasuna duten pertsonen bizi-itxaropen handiagoarekin, edota zaintzaileen baldintzekin lotuak dauden faktore berriak agertzen dira.
- ✓ Gizarte bazterketako egoera larrian dauden pertsonak % 4,7 gehiago izango direla aurreikusten da, eta egoitza bazterketa larrian daudenak % 15 gehiago.
- ✓ 800 pertsona gehiago egongo dira babesgabetasuneko egoeran (haurrak, indarkeriaren biktimak, adineko pertsonak, etab.).

Horrela, bada, **gizarte zerbitzuak eska ditzaketen kolektibo nagusien eboluzioa zernolakoa** izan daitekeen estimatu da. Hurrengo taulan laburbiltzen da estimazio hori:

3. taula. Gipuzkoan gizarte zerbitzuak eska ditzaketen kolektibo nagusien eboluzioaren estimazioa. 2013-2017

Eremua	Kolektiboa	2013	2017
Mendekotasuna	Mendekotasun arriskuan dauden 18 urtez azpikoak	487	462
	Mendekotasuna duten 18 urtez azpikoak	877	883
	Mendekotasun arriskuan dauden 18-64 urte artekoak	914	867
	I. mailako mendekotasuna duten 18-64 urte artekoak	5.079	4.818
	Mendekotasun arriskuan dauden 65 urtekoak edo hortik gorakoak	5.280	5.719
	I. mailako mendekotasuna duten 65 urtekoak edo hortik gorakoak	19.696	21.430
	Mendekotasun arriskuan dauden pertsonak, guztira	6.681	7.048
	I., II. edo III. mailako mendekotasuna duten pertsonak, guztira	25.652	27.130
	Zaintzaile informalak	21.714	22.548
Gizarte bazterketa	Gizarte bazterketa larriko egoeran dauden pertsonak	47.265	49.502
	Egoitza bazterketa larriko egoeran dauden pertsonak	531	611
	Guztira	47.797	50.113
Babesgabetasuna	Babesgabetasuneko egoera larrian dauden adingabeak	1.387	1.527
	Babesgabetasuneko egoera arin nahiz moderatuan edo horren arriskuan dauden adingabeak	2.356	2.761
	Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeak	1.142	1.197
	Desgaitasuna duten eta babesgabetasuneko egoeran dauden pertsonak, 18-64 urte artekoak	520	493
	Babesgabetasuneko egoeran dauden 65 urtetik gorako pertsonak	3.453	3.677
	Guztira	8.858	9.654
Guztira	Ukitutako pertsonak, guztira	110.702	116.492
Biztanleak, guztira		713.818	700.200

Iturria: SIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa. *Gizarte Zerbitzuen etorkizuneko eskaria Gipuzkoan. 2017*

3. FASEA.- Populazioaren hedapenerako irizpideak aplikatzea Gipuzkoarako

Atal honi hasiera emateko, **Katalogoko zerbitzu bakoitzak lortu behar dituen gutxieneko nahiz gehieneko estaldurak zehazteko EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan ezarritako irizpide teknikoak** laburbilduko ditugu. Mapa hori GZEAOk onartu zuen 2014ko abenduaren 19an.

3.1.- GZEAOk EAE osorako ezarritako irizpideak:

- Balio-tarte bat ezartzen da zerbitzu bakoitzerako, goiko mailaren eta gutxieneko mailaren artean kokatua dagoena, hain zuzen ere.
- Gutxieneko estaldurak gutxieneko mailari dagozkio, eta horiek bermatu beharra dago 2017an. Goiko mailara iristen saiatu beharra dago.
- Gutxieneko estaldurak eremu geografiko desberdinetako berezitasunetara egokitzeko modua emango duen adierazle sintetiko bat:

⇒ **Goiko maila:**

- o 1. urratsa → 2011ko estaldura 2017ko xede biztanleriarekin biderkatuz
- o 2. urratsa → emaitza gorantz zuzenduz: ≥ 75 urte eta SBE 2017an

Adibidea: Eguneko Zentroak, adineko pertsonentzako:

- 1.- Adierazle sintetikoa, 1. urratsa → $\% 0,999$ (2011ko estaldura) $\times 153.738$ (>65 urte 2017an) = 1.536
- 2.- Adierazle sintetikoa, 2. urratsa → 1.536 (1. urratsaren emaitza) $\times 75.207$ (> 75 urte 2017an) / 72.979 (> 75 urte 2011n) = 1.583
- 3.- Goiko maila = 2017an 65 urtez gorako biztanleriaren $\% 1,029$ = 1.583

⇒ **Desgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzuen gutxieneko maila:** 2014ko plazak bermatzea eta gaur egungo itxaron-zerrenda betetzea. Helburuak bi maila edo fasetan planteatzen dira: 2017rako eta 2020rako

Adibidea: Zentro Okupazionalak, desgaitasuna duten pertsonentzako:

- 1.- 2020rako helburua = 1.100 plaza (2014ko eskaintza) + 145 plaza (2014-10-13ko itxaron-zerrenda) = 1.245 = $\% 0,314$
- 2.- 2017rako helburua = Gipuzkoako batez besteko estaldura 2017an ($\% 0,314$) > EAEko batez besteko estaldura 2017an ($\% 0,231$) → 1.100 plaza (2014ko eskaintza) + 30 plaza (2015-2017ko Gipuzkoako Maparen helburua) = 1.130 = $\% 0,285$

- ⇒ **Babesgabetasunari laguntzeko zerbitzuen gutxienerako maila:** xede populazioaren eboluzio demografikoa beheranzkoa den arren, 2011ko plazak gehitzea ezarri da helburu moduan ondorengo zerbitzuetan:
- ostalua eta egoitza zentroak, genero-indarkeriaren biktime diren emakumeentzat
 - esku-hartze soziojuridiko eta psikosozialeko zerbitzuak, etxeko tratu txarrak hartu dituzten emakumeentzat
 - gizarte eta hezkuntza arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartze zerbitzuak familiekin
 - familia harrera sustatzeko eta laguntza tekniko emateko zerbitzua

Salbuespena: adingabekoen zentroetan ez da gehikuntzarik aurreikusten, 2011-2013 denboraldian plaza-kopuruaren eskaerak izan duen eboluzioagatik.

- ⇒ **“Egonkortu gabekotzat” jotako zerbitzuen gutxienerako maila:** zerbitzu berriak dira, lehendik ez daudelako edo oso gutxi garatu direlako. Zerbitzu horientzat ezartzen diren estaldura edo gastu helburu espezifikoak izan daitezke murrizak – abiapuntu moduan–, edo baita EAEko batez besteko estalduraren % 80 baino handiagoak ere –bultzada edo sustapen berezi gisa–.

• **Zerbitzu berriak**

- etxebizitza babestua bazterketa arriskuan dauden pertsonentzat (udalaren eskumenekoa)
- gizarte premien koordinazioa
- gaueko zentroak
- bizimodu independentea laguntzeko zerbitzua
- egoitza eta eguneko arreta adineko pertsonentzat (udalaren eskumenekoa)

• **Gutxi garatutako zerbitzuak eta prestazioak**

- zaintzaileei atsedeen eta laguntza emateko zerbitzua
- laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (LPPE) (Bizkaia eta Araba)

3.2.- Gipuzkoarako helburuak ezarri eta finkatzea

Abiapuntu moduan EAEko maila orokorrerako ezarritako irizpideak hartuz, helburu horiek Gipuzkoako Lurralde Historikorako egokitzeko saioaren laburpena aurkezten da jarraian, gutxienerako estaldurak zehaztuz.

Helburua aurrerapausoak ematea da, Gipuzkoan eta 2017. urteari begira, gizarte zerbitzuen sistema unibertsal bat eratu ahal izateko, lurralde historiko osoan zerbitzuak eta prestazioak jasotzeko aukera eskubide subjektibo gisa bermatuko duten arreta eta babes maila homogeneoarekin osatutako ikuspegi komunitarioa erabiliz.

Ezinbestekoa izango da, horretarako, titulartasun publikoko eta pribatu itunduko zentroen eta zerbitzuen egungo sarea indartu eta zabaltzea, 2017an Gipuzkoa osoan beharrezkoak diren plazak edukitzeko aukera bermatzeko, batetik, eta beharrezkoak diren profesional guztiak horretan aritzeko modua izan dezaten, bestetik.

Azken xede hori lortzeko, ondorengo bitarteko helburuak planteatzen dira:

- 1) Gutxieneko estaldurak bermatzea eta, horiek lortzean, zerbitzu bakoitzerako estaldura maila egokia lortzeko bidea hartzea.
- 2) Zerbitzuetara sartzeko itxaron zerrendak eta denbora murriztea.
- 3) Mendekotasun mailarik handiena duten pertsonen arreta maila handitzea.
- 4) Lurraldeko desorekak murriztea eta zerbitzuak gerturatzea, erabiltzaileek beren ohiko gizarte ingurunean jarrai dezaten.
- 5) Laguntza pertsonaleko prestazioa, familia ingurunean zaintzeko prestazioa eta beste zerbitzu batzuk konbinatzea, eta onuradunen gainbegiratua eta jarraipena sustatuko dituen laguntza ekonomikoko eredu bat bultzatzea.

Bitarteko helburu horietatik abiatuz, **EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapako irizpideen ezarpenetik ateratzen diren estaldurako irizpideak egokitu dira**, hurrengo irizpide eta adierazleekin bat:

- Zerbitzu batzuetan murriztu egin da egungo itxaron zerrendak osatzen dituzten pertsonen kopurua, “itxaron zerrenda tekniko” bezala jotzen den mailaraino jaitsi arte. Maila horrek ez du plaza eskaintzaren % 10 gainditu behar.
- “Arrazoizkotzat” jotzen diren batez besteko itxaron denborak ezarri dira helburu gisa.
- Azkenik, eta gaur egun lurraldeen artean dagoen desoreka murriztu eta gutxitzeko, zenbait eremu geografikotako egungo estaldura tasa hartu da erreferentzia gisa plazen defizitak zehazteko, datuek erakutsi eta frogatzen duten bezala eremu horietako zerbitzuen egungo eskaintzak ongi betetzen baitu dagoen eskaera.

Irizpide horiek guztiak aplikatzeari esker, Euskal Mapa berrian barneratutako estaldura-helburuak Gipuzkoaren egungo egoerara eta bertako eskaerara egokitu ahal izan dira.

4. FASEA.- Gipuzkoako gizarte zerbitzuetako sare publikoko estaldura-helburuak eta defizitak

Aurreko fasean ezarritako irizpideen arabera, ondorengo puntuak azaltzen dira hurrengo tauletan:

- Gipuzkoaren kasuan 2017rako zerbitzu bakoitzean helburu gisa proposatzen diren estaldurako ratioak (gutxieneko maila).
- Zerbitzu bakoitzean bere lurralde-eremuari dagozkion 2017ko estaldura ratioak aplikatu ondoren, zerbitzu horretan atzemandako defizitak kolore gorrian adierazten dira.
- Udalaren eskumenekoak diren gizarte zerbitzuen datuak eta foru eskumenekoak diren zerbitzuenak bereizita ematen dira.
- Ratio horiek aldeztatik ezarritakoez bestelako lurralde eremuetara aplikatzeak eremu horretan egoera zer-nolakoa den ikusteko modua eskaintzen du, baina ez du zerbitzuen defizita kalkulatzeko aukerarik ematen.

4. taula. Estaldurako helburuen balioak, prestazioen lurralde-eremuak eta defizit totalak, zerbitzu motaren arabera

UDALAREN ESKUMENENKO ZERBITZUAK	Eremua	Estaldura 2017*	Defizita THG**	Defizit esanguratsuenen lokalizazioa
1.1. Informazio, balorazio, diagnostiko eta orientazioko zerbitzua (erabiltzaileak)	Oinarrizko zonaldea	10,633	0	
1.2. Etxeko laguntza zerbitzua (baimendutako orduak)	Oinarrizko zonaldea	910,33	-431.531	
1.3. Gizarte eta hezkuntza arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartze zerbitzua	Oinarrizko zonaldea	0,0696	74	
1.7. Eguneko arretarako zerbitzuak: adineko pertsonak	Area	0,072	-111	Bidasoa, Oarsoaldea eta Buruntzaldea
1.9.1. Harrerako etxebizitza: (gizarte larrialdia + emakumeak)	Area	0,066	100	Donostia B eta Oarsoaldea
1.9.2., 1.9.3. eta 1.9.4. Bizileku zerbitzuak: adineko pertsonak	Area	0,538	-207	Bidasoa, Oarsoaldea, Donostia C, Leintz Ibarra
1.7. Eguneko arreta: bazterketa (eguneko zentroak eta jangelak)	Eskualdea	0,047	-119	Donostialdea
1.8. Gaueko harrera: bazterketa (aterpetxeak eta neguko dispositiboak)	Eskualdea	0,031	-42	Bidasoa, Buruntzaldea eta Goierri
1.9.2. Etxebizitza babestua: bazterketa	Eskualdea	0,02	-80	Donostia
LEHEN MAILAKO ARRETAKO DEFIZITA, GUZTIRA			-559	

FORU ESKUMENENKO EGOITZA ZENTROAK ETA EGUNENKO ZENTROAK	Eremua	Estaldura 2017*	Defizita GLH**	Defizit esanguratsuenen lokalizazioa
2.2.1. Eguneko zentroa, adineko pertsonentzat	Area	1,006	-96	Bidasoa, Donostia B eta D, Deba Erdia eta Leintz Ibarra
2.2.2. Zentro okupazionala	Area	0,285	-50	Buruntzaldea, Deba Kosta, Bidasoa eta Oria Garaia
2.4.1. Egoitza zentroak, adineko pertsonentzat	Area	3,006	-157	Buruntzaldea, Oarsoaldea, Donostia B eta E eta Bidasoa
2.4.2.a) Etxebizitza, desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko	Eskualdea	0,34	-56	Urola Kosta, Debagoiena, Debarrena eta Bidasoa
2.4.3.a) Etxebizitza, gaixotasun mentala duten pertsonentzat	Eskualdea	0,14	-48	Donostialdea, Urola Kosta, Debagoiena eta Bidasoa
2.4.4. Egoitza zentroak, babesgabetasun egoeran dauden adingabeko.	Eskualdea	0,256	0	Bidasoa, Urola Kosta eta Tolosaldea
2.2.1. Eguneko zentroa, desgaitasuna duten pertsonentzat	Sektorea	0,223	-42	Mendebaldeko sektorea
2.2.3. Eguneko zentroa, gizarte bazterketako premiak artatzeko	Sektorea	0,044	-30	Mendebaldeko sektorea
2.4.2. Egoitza zentroak, desgaitasuna duten pertsonentzat	Sektorea	0,271	-35	Mendebaldeko sektorea
2.4.3. Egoitza zentroak, gaixotasun mentala duten pertsonentzat	Sektorea	0,064	-29	Sektore biak, Ekialdea eta Mendebalde
2.4.5. (2) Egoitza zentroak, gizarteratzeko	Sektorea	0,5	41	Mendebaldeko sektorea
2.3.1. Gaueko zentroa: autonomia mugapenerako	LHistorikoa	0,01	-14	
2.3.2. Gaueko harrera zentroa: gizarteratzeko	LHistorikoa	0,003	-14	
2.4.5. (1) Egoitza zentroak, bazterketa kronifikatua	LHistorikoa	0,12	-37	
2.4.6. (1) Berehala harrera egiteko zentroak, etxeko tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako	LHistorikoa	0,01	-9	
BIGARREN MAILAKO ARRETAKO DEFIZITAK, GUZTIRA			-634	

*Mendekotasuneko zerbitzuetan, estaldurak 65 urtetik gorako pertsonen arabera. Desgaitasunean, 18-64 urte bitarteko pertsonen arabera. Babesgabetasunean, 18-64 urte bitarteko emakumeen eta 17 urte edo gutxiagoko pertsonen arabera.

** Plazetan dauden defizitak, kontraktorik adierazten ez bada.

FORU ESKUMENENKOAK DIREN BESTE ZERBITZU, PROGRAMA ETA PRESTAZIO BATZUK	Eremua	Estaldura 2017*	Defizita GLH
2.5. Atsedeen zerbitzuak, adineko pertsonentzat	L. Historikoa	0,02	-15
2.5. Atsedeen zerbitzuak, desgaitasuna duten pertsonentzat	L. Historikoa	0,003	-12
2.6. Gizarte larrialdiak koordinatzeko zerbitzua	L. Historikoa	0,152	0
2.7.2.3 Tutoretza zerbitzua, desgaitasuna duten helduentzat	L. Historikoa	0,19	-120
2.7.3.1. Gizarte eta hezkuntza arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartze zerbitzua, familientzat	L. Historikoa	1,228	-54
2.7.4. Esku-hartze sozialeko Zerbitzua, Arreta Goiztiarrean	L. Historikoa	1,723	-600
2.7.5. Arreta soziojuridiko eta psikosozialeko zerbitzua, genero-indarkeria jasan dutenentzat	L. Historikoa	0,792	-452
2.7.6.1. Familia-harrera sustatzeko eta laguntza teknikoko zerbitzua	L. Historikoa	0,061	-79
3.1.1. Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa (LPPE)	L. Historikoa	0,432	-207
3.2.1. Familia Ingurunean Zaintzeko Prestazio Ekonomikoa (FIZPE)	L. Historikoa	7,759	-2.769
3.3. Norberaren autonomia errazteko laguntzak (laguntza teknikoak)	L. Historikoa	1,021	0

*Mendekotasuneko zerbitzuetan, estaldurak 65 urtetik gorako pertsonen arabera. Desgaitasunean, 18-64 urte bitarteko pertsonen arabera. Babesgabetasunean, 18-64 urte bitarteko emakumeen eta 17 urte edo gutxiagoko pertsonen arabera. Arreta Goiztiarrean, 6 urtez azpikoen arabera.

- **Lehentasunezko esku-hartzeak hautatzea**

Bigarren mailako gizarte zerbitzuetan ezarria dagoen defizita (634 plazakoa) estaltzeko sarea zabaltzeko aukera emango luke, eta 2017an aurreikusitako eskaera betetzeko modua edukiko litzateke era horretan.

Hala ere, plaza berriak ezartzeko egutegia finkatzeko orduan ezin utz daitezke albo batera zalantza ugari daudela oraindik, ez baitago argi zerga kontuetan dauden zenbait figura mantenduko diren ala ez, edo Mapa honek zenbat denbora iraungo duen indarrean. Faktore horiek defizita estaltzeko beharrezkoak diren plaza berriak sortzeko erritmoa atzera baitezakete.

Arrazoi horregatik, aipatutako 634 plaza horien artean, **lehentasunezko zat jotzen diren 417** hautatu dira, hurrengo irizpideen arabera:

- Eskariaren eboluzioa eta arreta zabaltzeko dagoen premia eta larritasuna.
- Zerbitzu jakin batzuetan estaldura-hutsune bereziak dituzten eremu geografikoak.
- Inbertsioak egiteko eta plazak hitzartzeko aukerak, plazak zabaldu edo gehitzeko aukera duten zentroetan.

1.- **Lehentasunak eguneko zentro edo zerbitzuetan**

- **Eguneko zentroak, adineko pertsonentzat:** Debagoienan eta Buruntzaldean arreta mailan eskaintzen den estaldura-tasa baxua gehitzea proposatzen da. Horrez gain, 2.000 biztanletik gora dituzten GLHko udalerrri guztiek era horretako baliabideak edukitzeko helburua betetzeko, Soraluze eta Mutrikuko udalerrietan plaza berriak zuzkitzea proposatzen da.

- **Eguneko zentroak, desgaitasuna duten pertsonentzat:** beharrezkoa da baliabide sarearen egokitzapena, birkokapena, balioaniztasuna eta sendotzea aurreikustea. Eta gainera ezinbestekoa izango da gaur egungo estaldura areagotzea, baliabide hauen eskaintzan egun lurraldean dagoen desoreka arintzeko, batetik, eta desgaitasuna duten pertsonetan zahartze prozesuak eragindako beharrianak artatzeko, bestetik.
- **Zentro okupazionalak:** Lurraldeak duen batez besteko estaldura nahikoa dela pentsa daitekeen arren, defizitak ikusten dira zenbait areatan –Bidasoa, Deba Erdia eta Oria Garaian, esate baterako–, murrizten saiatu beharko liratekeenak.
- **Gizarteratzeko zentroak:** 2013an zentroetan egindako birmoldaketari esker, zegoen defizita ia osorik estaltzea lortu da, eta horregatik Bidasoaldean 12 plazako zentro berri bat irekitzeko proiektua aipatzen da.

2.- Lehenetsunak gaueko harrera zentroetan

- **Gaueko zentroa, autonomian dauden mugapenek eragindako premia eta beharrianak artatzeko:** Gipuzkoan era horretako zentro bakar bat ere ez dagoen arren, ez da arreta mota horretarako eskari errealik sumatu. Arrazoi horregatik, egoitza zentro jakin batzuetan lehendik dauden zenbait plaza xede horretarako homologatzea proposatzen da, zerbitzuaren eskari erreal eta eraginkortasuna ebaluatzeko modua emango duten esperientzia pilotu moduan.
- **Gaueko harrera zentroa, gizarteratzeko premiak eta beharrianak artatzeko:** Gipuzkoan ez dago zerbitzu mota horretarako plaza bakar bat ere, eta arrazoi horregatik lehendik zeuden plaza batzuk zentro bakarrean bildu eta esperimentu moduan xede horretarako birmoldatzea planteatzen da.

3.- Lehenetsunak, egoitza baliabideetan

- **Egoitza zentroak, adineko pertsonentzat:** gaur egun egoitza baliabideetan dauden plazen eskaintza 98 plaza berrirekin gehitzea proposatzen da, 2017. urterako aurreikusten den 65 urtetik gorako biztanleriaren gorakadak itxaron zerrenda teknikoetan eragin ditzakeen arazoei erantzun maila ahalik eta onenak emateko helburua betetzeko eta lurraldeen arteko oreka handiagoa lortzeko. Horrela, badira lurraldearen batez bestekoa baino itxaron zerrenda handiagoak dituzten eremuak - Buruntzaldea eta Oarsoaldea, adibidez-. Defizita bereziki da esanguratsua Oarsoaldean, eta ezinbestekoa da hutsune hori aurreikusi eta eremu horretan egoitza zentro berri bat eraikitzeko aurreneko pausoak ematea.
- **Egoitza zentroak eta etxebizitzak laguntzekin, desgaitasuna duten pertsonentzat:** plaza hazkunde neurritzkoa proposatzen da Lurraldeko eremu batzuetan -Urola Kostan, Debagoienan, Goierrin eta Bidasoan- dauden defizitak estaltzeko, eta desgaitasuna duten pertsonen euren zahartze prozesuak eragiten dizkien beharrianak artatzeko, arreta emateko egunak urte osora zabalduz, laguntza zabal eta orokortuak eskatzen dituzten pertsonentzat egoitza plazak eskainiz, eta, azkenik, euren arreta jasotzeko epea amaitu zaien pertsona gazteentzat plazak eskainiz, babesgabetasuneko egoeran dauden adingabekoentzako zentroen sarearen bitartez.
- **Egoitza zentroak eta etxebizitzak laguntzekin, buru nahasmenduak dituzten pertsonentzat:** Aurreko tipologian gertatzen den bezala, egindako azterketak nabarmen erakusten du gaur egungo eskaintzak ez duela betetzen inola ere azken urteotan izandako eskaera gero eta handiagoa. Horregatik, BNLEU eredia (buru nahasmendu larria dutenentzako egoitza unitateen eredia) indartu eta sendotu nahi da, buru nahasmendu larria duten pertsonentzako egoitza plaza berriak sortuz GLHaren

eskualde guztietan, Debarrena eremuan izan ezik. Puntu honetan, erabakigarria izango da Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin lortu daitekeen akordioa edo hitzarmena.

- **Egoitza zentroak, babesgabetasuneko egoeran dauden adingabekoentzat:** laguntzailerik gabeko adingabe atzerritar gutxiago datozela kontuan hartuz, batetik, eta baita beste faktore batzuk ere, egoitza plaza orokorren egungo eskaintza ez areagotzea gomendatzen da. Horrez gain, eskari hori familia harreraren bitartez estaltzea da Gipuzkoan planteatzen den helburua eta, horren ondorioz, egoitza harrerako formula beste aukera edo alternatiba baten moduan sendotuko litzateke.
- **Egoitza zentroak eta etxebizitzak, gizarteratzeko laguntzekin:** baliabide mota honen gaur egungo banaketak eskaintza deszentralizatzea gomendatzen du, Lurraldeko Mendebaldeko Sektorean plazen eskaintza areagotuz, plaza batzuk lekualdaketa bidez birkokatuz eta beste plaza berri batzuk sortuz. Gainera, komenigarritzat jotzen da egungo eskaintza kualifikatu eta ezberdintzea, eta baliabide batzuk espezializatu eta bereiztea, profil konplexuak dituzten kolektiboak, familiak eta egoera jakin batzuk (espetxe giroan bizi izandakoak) sor ditzaketen premiak bete eta estali ahal izateko.
- **Harrera berehala egiten duten zentroak eta egonaldi ertain eta luzeko harrera etxebizitzak, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzat:** ez da inolako lehenetsunik ezartzen plaza berrien sorkuntzari dagokionez, baina Gipuzkoan berehalako harrera egingo duen bigarren zentro bat onartu da eta GLHaren bi sektoreetan autonomiako etxebizitzak irekiko dira berandu baino lehen.
- **Zentro soziosanitarioak:** Defizitak ikusi dira zenbait eskualdetan, ez baitago behar adina plaza egoitza unitate soziosanitarioetan (EUSSetan). Horregatik, Lurralde Historiko osoan gaur egun dagoen EUSSen eskaintza osatzea proposatzen da. Eta proposamen hori aurreraxeago jasotzen den baliabide soziosanitarioen planifikazioarekin koordinatu beharko da, erabakigarria izanik, puntu honetan, Osasun Sailarekin lortuko den akordioa.

Atal honetan jasotako proposamen guztien sintesi moduan, **Mapa honek Gipuzkoan 2015-2017 epealdian lehentasunez gehitu edo areagotu nahi dituen 417 plaza berrien laburpena biltzen da** hurrengo koadroan, alde zuzenetik ezarritako lurralde eremu edo eremu geografiko desberdinetan banatuak.

5. taula. Leentasunezko esku-hartzeak 2015-2017 epealdirako, lurralde-eremuen eta zerbitzuen arabera

		2015		2016		2017		2017-2015		2017-2016		2017-2015		2017-2016					
	GUZTIRA																		
	2.4.6. (2) EE/L indarkeriaren biktima diren emakumeentzako egonaldiak																		
	2.4.6. (1) BHZ, indarkeriaren biktima diren emakumeak																		
	2.4.5. (2) EZ, gizarteratzea		16		6														
	2.4.5. (1) EZ, bazterketa: kronifikatua	10																	
	2.4.4. EZ, babesik gabeko adingabeak																		
	2.4.3.a) Etxebizitza, buru nahasmendua																		
	2.4.3. BF, buruko nahasmendua		14		12														
	2.4.2.a) Etxebizitza, desgaiatasuna																		
	2.4.2. EZ, desgaiatasuna		16		12														
	2.4.1. EZ, adineko pertsonak																		
	2.4. Egoitza zentroak																		
	2.3.2. GHZ, gizarteratzea	8																	
	2.3.1. GHZ, mendekotasuna																		
	2.3. Gaueko Harrera Zentroak																		
	2.2.3. EZ, gizarteratzea		12		8														
	2.2.2. Zentro okupazionala																		
	2.2.1. EZ, desgaiatasuna		19		16														
	2.2.1. EZ, mendekotasuna																		
	2.2. Eguneko zentroak																		
LH	LURRALDE HISTORIKOA																		
	SEKTOREA																		
	EKIALDEKO SEKTOREA																		
	MENDEBALDEKO SEKTOREA																		
	ESKUVALDEA																		
	BIDASOA									6	6								
	DONOSTIALDEA										6								
	UROLA KOSTA									6	6								
	DEBABARRENA														0				
	DEBAGOIENA									6	6								
	GOIERRI									6	6								
	TOLOSALDEA										6								
	GIZARTE ZERBITZUETAKO EREMUA																		
	BIDASOA		6		5				0						11				
	OARSOALDEA		10						20*						30				
	DONOSTIA eremu guztiak		20		8				10						38				
	BURUNTZALDEA		10						6*						16				
	UROLA KOSTALDEA								6						6				
	IRAURGI								6						6				
	DEBA KOSTA		12												12				
	DEBA ERDIA		12		4										16				
	BERGARALDEA														0				
	LEINTZ IBARRA		10		5				30						45				
	UROLA GARAIA				4				10						14				
	ORIA GARAIA				4				10						14				
	TOLOSALDEA														0				
	Lehtasunezko plaza guztiak		80	35	30	20		0	98	28	24	26	36	0	10	22	0	0	417
	Defizitak plazetan		-96	-42	-50	-30		-14	-157	-35	-56	-29	-48	0	-17	-37	-9	0	-634
	Geratzen den defizita		16	7	20	10		14	59	7	32	3	12	0	7	15	9	0	217

Oarsoaldea eta Buruntzaldeako eremuetan soilik plaza kopuru hori barnertzen da eremu horietan eskari erreala betetzeko beharrezkoak diren plazak kontzertatzeko dauden zailtasunak direla medio

5. FASEA.- Hobekuntzarako helburuak hautatzea

Azkenik, komenigarria iruditzen zaigu dokumentu honetan eskaintzaren eta eskariaren inguruan egindako azterketa baliatzea **zuzenean plaza estaldurarekin lotuak ez badaude ere, asistentziaren kalitatearekin eta eraginkortasunarekin lotuak dauden zenbait helburu espezifiko eta neurri** planteatzeko, **bigarren mailako arretako zerbitzuei eta prestazio ekonomikoei** dagokienez.

Neurri horiek hautatzeko, besteak beste, irizpide hauek erabili dira

- Gaur egun ematen diren zerbitzuak hobetzea.
- Zenbait zerbitzutako arreta ingurunean eta erkidego mailan sustatzea, batez ere, adinekoen eta haurtzaroaren babeserako esparruan.
- Egungo eskaintza osatzea beharizan espezifikoak dituzten pertsona eta kolektiboak artatu ahal izateko, programa eta zerbitzu berrien bidez.
- Gipuzkoako Batzar Nagusietan 2013ko uztailaren 11n onartutako "Pobretutako herritarren beharrak eta eskaini beharreko baliabideak zehazteko talde txostengilearen ondorioen txostena" izenekoan barneratzen diren neurri eta ekintzak aintzatestea.

Jarraian, bigarren mailako helburu eta neurri horietako batzuk zerrendatzen dira:

2.- Bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuak

2.1. Mendekotasuna, desgaitasuna, bazterketa eta babesgabetasuna balioetsi eta diagnostikoa egiteko zerbitzua

- Mendekotasuna eta desgaitasuna balioesteko foru kudeaketa zuzena abiaraztea.
- Gizarte Bazterkeria Balioesteko Lanabesa abiaraztea modu esperimentalean.

2.2. Eguneko zerbitzu edo egoitzak, 2.3. Gaueko harrera-zentroak eta 2.4. Bizitegi-egoitzak

- Inplikaturako entitateen lankidetzarekin, egoitzetan desgaitasunaren arretarako eredu bat diseinatzea
- Arretari dagokion urteko egutegia hedatzea desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentro eta etxebizitzetan
- Bideragarritasun-arazoak dituzten egoitza txikiei laguntzea
- Gizarteratzeko egoitzetan arretaren intentsitatea sendotzea, laguntzaren intentsitatea hobetuz eta langile/plaza indizea ere hobetuz
- Gizarteratzeko egoitzetan sartzeko Dekretua garatzea

2.5. Atsedenerako zerbitzua

- Atsedenerako egoitzetan plaza kopurua areagotzea: oporraldiak, beharizan bereziak eta asteburuak

2.6. Gizarte premia eta larrialdien koordinaziorako zerbitzua

- Esku-hartze psikosoziala hobetzea gizarte-emergentzia eta ezbeharrak artatzerakoan
- Lehen nahiz bigarren mailako harrera-zerbitzuekin batera gizarte-larrialdien kudeaketa bateratua hobetzea

2.7. Bigarren mailako beste zenbait arreta-zerbitzu

2.7.2. Autonomiari eusteko zerbitzuak:

2.7.2.1.-Bizitza independenteari laguntzeko zerbitzua.

- Bizitza independenteari laguntzeko zerbitzuaren efizientzia, eraginkortasuna eta asebetetze-maila neurtzea.
- 2.7.2.2.-*Ingurune fisikorako laguntza tekniko eta egokitzapenerako zerbitzua.*
- Laguntza teknikoak emateko denborak murriztea eta zerbitzuaren asebetetze-maila neurtzea.
- 2.7.2.3.-*Desgaitasuna duten pertsona helduentzako tutoretza-zerbitzua*
- Zerbitzuak duen erantzukizun eta ardura publikoaren onarpenean aurrerapausoak ematea, zerbitzuaren kudeaketan esku-hartze instituzionala areagotzearen bidez (eskaeren izapidetzea, Estranet bidezko kudeaketa, artatutako kasu bakoitzaren finantzaketa...)

2.7.3. Familiako esku-hartze eta bitartekaritzarako zerbitzuak

2.7.3.1. Familiarekin gizarte-hezkuntzazko esku-hartzea edota esku-hartze psikosozialeko zerbitzuak lantzea

- Sendian izenekoan barneratzen diren baliabideak hedatu eta sendotzea eta pertsona zaintzaileen asebetetze-maila neurtzea.
- Babesgabetasun-egoeran dauden familientzako esku-hartzearen eredu berria, ebidentzian oinarritutako programei jarraituz
- Familiarekin gizarte-hezkuntzazko esku-hartzea edota esku-hartze psikosozialeko zerbitzuak bultzatzea.

2.7.4. Arreta goiztiarrean esku-hartze soziala burutzeko zerbitzua.

- Beren garapenean nahasmenduak dauzkaten edo arriskuko egoeran aurkitzen diren 6 urtez azpiko neska eta mutikoei arreta integrala eta eraginkorra eskaintzeko eredu berria ezartzea.

2.7.5. Arreta sozial eta juridikorako nabiz psikosozialerako zerbitzuak egoera hauetan: emakumeek etxean jasandako tratu txarrak eta eraso sexualak, adin txikikoen aurkako erasoak, adin nagusikoen aurkako erasoak eta desgaituen aurkako erasoak

Indarkeria matxista jasan duten emakumeen arretari dagokionez.

- Arreta sozial eta juridikorako zerbitzua hobetzea Gipuzkoako Lurralde Historikoan emakumeen aurka ematen diren indarkeria matxistaren kasuetan eta eraso sexualetan
- Hobekuntza laguntza psikologikorako arretari dagokionez
- Hobekuntza indarkeria matxista eta eraso sexualak jasan dituztenen arreta-zerbitzuen dibertsifikazioari dagokionez
- Bazterketa-arriskuan dauden pertsonen arretari dagokionez, egoitzan egiten ez diren esku-hartzeen programak indartzea, ikuspegi komunitario batekin, estaldura Lurralde Historiko osora hedatzeko helburuarekin

2.7.6. Familia-harrera eta adopzioa sustatu eta laguntzeko zerbitzuak.

2.7.6.1. Familia-harrera sustatu eta teknikoki laguntzeko zerbitzua

- Familia-harrera sistemako erreferentziazko eredu bilakatzea.
- 16 plaza berri gehitzea harrera profesionalizatuko zerbitzuan.
- Berehalako familia-harrera txertatzea, 0-6 urte bitartekoentzat.

2.7.6.2. Adopzioa sustatu eta teknikoki laguntzeko zerbitzua

- Aurretiazko prestakuntza-programaren eta adopzio osteko zerbitzuen hobekuntza.

3.- Prestazio ekonomikoak:

- 2015eko uztailetik aurrera, 1. mailako eta 1. graduako MBB baremoa duten mendeko pertsonen prestazio gehiago aitortzea
- Emandako prestazioen eraginkortasuna ebaluatzea.
- Prestazio ekonomikoen hartzaile diren eta, aldi berean, mendekotasun egoeran edo hala izateko arriskuan dauden pertsonak etxean mantentzeko xedez abiarazten den zerbitzu bat jasotzen duten pertsonen kopurua areagotzea.
- Gizarte bazterketan egoteko arriskuan dauden gazteentzako emantzipaziorako prestazio ekonomikoa sortzea.

Atal hau osatzeko, dokumentu honetan bertan aurrez aipatutako zerbitzu eta prestazioetan aplikatzekoak diren **zeharkako helburu** batzuk jasotzen dira jarraian, hiru bloketan banatuak:

a) Erakundeen arteko koordinazioa.

- Gizarte Politikako Departamentuaren Zuzendaritza eta Zerbitzu desberdinen arteko koordinazioa hobetzea, eta baita udaletxeekiko eta gizarte zerbitzuak eskaintzen dituzten gainerako erakundeekiko harremanak ere, Mapa honetan planteatutako helburuak lortzeko bidean aurrerapausoak emateko modua eskainiko duten estrategiak elkarlanean diseinatzeko.
- **Arlo soziosanitarioan**, eta zehazki soziosanitarioak diren baliabide berrien eremuari dagokionez, hurrengo helburuak planteatzen dira epealdi berrirako:
 - Baliabide soziosanitarioen garapen eta ezarpena osatzea: Egoitzetara sartzeko Dekretu bat hitzartu eta arreta-eredua erabiltzaileen profil berrietara egokitzea.
 - Osasun Sailarekin elkarlanean, Egoitza Unitate Soziosanitarioen sarearen eta buru nahasmendua eta droga-mendekotasuna duten pertsonak artatzeko sarearen planifikazio bateratua egitea, pertsona erabiltzaileak bertan egingo duen ibilbidea koordinatua izango dela bermatzeko. Ildo honetan, 2014-2015eko Gipuzkoako Plan Operatibo soziosanitarioan planteatutako helburuak nabarmendu eta azpimarratu behar dira.

b) Kalitate tekniko eta asistentzialaren maila hobetzea:

- Bizi Kalitatearen Eredua eremu guztietan garatu eta pixkanaka ezartzen joatea.
- Kalitate asistentzialeko praktika onak hedatzea gizarte zerbitzuetan.

c) Gipuzkoako Foru Aldundiaren zeharkako politikekin lerrokatzea

- **Emakume eta gizonen berdintasunerako ikuspegiari** dagokionez, hurrengo helburu eta neurriak lagungarri izango dira Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planean (2013-2020) planteatutako helburuak erdiesteko:
 - Mapa honetan eta, oro har, Gizarte Politika Sailaren plangintzan generoa azterketarako kategoria modura barneratuko da egungo egoeraren bilakaera ezagutu, kontrolatu eta ebaluatzea ahalbidetzen duten datu eta adierazle guztietan.
 - Erkidegoaren ingurunean arreta hobetzeko proposamenek eta zerbitzuak eta zaintzaileak pixkanaka profesionalizatzeko zaintzaile ez formalak duintzea eragingo dute.
 - Jasotako proposamen multzoak berekin dakar zainketa politika publikoen ikuspegia familiari hain lotua ez egotea.
 - Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen eskaera potentzialean aurreikusten den bilakaerarekin zorrotasun gehiagoz planifikatu ahal izango dira pertsona horiek arretari dagokionez dituzten beharizanak. Gainera, zerbitzuen alorrean, laguntza-programa oso baten sorrerari, kolektibo horretarako proposatutako larrialdien baterako tratamenduari eta arreta sozial eta juridikoan nahiz psikosozialean proposatzen diren hobekuntzei esker, kolektibo horri zuzendutako arreta nabarmen hobetuko da.
- **Euskararen sustapenari** dagokionez, Euskararen Erabilera Normalizatzeko planean planteatutako helburuak, irizpideak eta gidalerroak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jarduketa eremuaren barruan integratzen ditu Mapa honek 2013-2017 epealdirako.
- Eta **Hiritarren parte-hartzeari** dagokionez, prozesuaren fase guztietan gizarte eragileen antolamendu eta partaidetza aktiboko ereduak sustatzeko beharrezkoak diren baldintzak sortu nahi ditu Mapa honek.

- I. ERANSKINA. - MEMORIA EKONOMIKOA

2015-2017ko Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapak ezarritako estaldura helburuen ezarpen mailakatuarekin lotuak dauden kostu ekonomikoen aurreikuspenak Memoria Ekonomikoan definitzen dira. Horretarako, ondorengo koadroetan maparen aplikazioak inbertsioaren eta gastu arruntaren mailan izango duen inpaktu ekonomikoa jasotzen da, batetik, eta baita Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentuaren aurrekontuan izango den gorakada ere, bestetik.

Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuetako Maparen zenbateko osoaren banaketa 2015-2017 epealdian zehar

Esku-hartzeak	Gastu arrunta	Inbertsioa	Gastua, guztira	%
Plaza berriak egoitzetan	11.920.767	2.427.296	14.348.062	% 48,4
Plaza berriak beste zerbitzu batzuetan	4.931.783	0	4.931.783	% 16,6
Prestazio ekonomikoak	8.144.082	0	8.144.082	% 27,5
Egoitzak araudira egokitzea	0	2.200.000	2.200.000	% 7,4
Guztira	24.996.632	4.627.296	29.623.928	% 100

- Aurrekontuaren igoeraren banaketa ekitaldi bakoitzeko

2015		2016		2017	
Gastu arrunta	Inbertsioa	Gastu arrunta	Inbertsioa	Gastu arrunta	Inbertsioa
3.709.238	404.616	3.188.211	962.188	7.492.497	1.489.072
4.113.854		4.150.399		8.981.569	
% 1,29		% 1,29		% 2,75	

- 2015-2017 epealdirako aurreikusitako igoeraren banaketa esparru nagusien arabera

Esparruak	Gastu arrunta	Inbertsioa	Gastua, guztira	%
Mendekotasuna	13.555.222	1.851.779	15.407.002	52%
Desgaitasuna	7.109.455	447.606	7.557.061	26%
Babesgabetasuna eta gizarte-larrialdia	1.695.142	700.000	2.395.142	8%
Gizarte-bazterketa	2.636.812	1.627.910	4.264.723	% 14
Guztira	24.996.632	4.627.296	29.623.928	% 100

- Mapan aurreikusitako gastuaren inpaktu ekonomikoa

Aurreikuspenak	Estimazioa	Adierazlea
Produktzioa areagotzearen ondoriozko zenbatekoa	59.247.855 €	Gastu estimatua: 2€/1€
Errenta areagotzearen ondoriozko zenbatekoa	30.216.406 €	Gastua: 1,02 €/1 €
Lanpostu berriak	741	Gastu estimatua: 25 enplegu/1.000.000 €
Diru-bilketa areagotzearen ondoriozko zenbatekoa	13.034.528 €	Estimaturako gastuaren % 44. Zergak eta gizarte-kotizazioak barne
GFARA bideratutako diru-sarrera fiskala areagotzearen ondoriozko zenbatekoa	7.820.717 €	Diru-bilketaren igoeraren % 60